



Udako uzta

Esan ohi da uda sasoia parentesia dela politikan. Agian politikaren ikuspegi instituzional hutsa duenak pentsatuko du horrela, baina oraindik ere amaitzear den aurtengo udak eman digu zer aztertu.

Uda sasoia hasteko zela osatu zen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako autonomia erkidegoan Jaurlaritzan, EAJk erabaki moduan, PSE-PSOE gobernukide hartuta, helburu nagusi batekin: EH Bildu geldiarazi, gobernu lanetatik urrundu, balizko aliantza estrategikoetatik apartatu. Imanol Pradalesen izendapenak ez du ezer aldatu EAJren aspaldiko norabidea. EAJk nahiago du, estatu espainiarrean gobernatzen duen PSOEn babespean, EAeko autonomia bere alderdiaren probetxurako kudeatu, Euskal Herriari begirako euskal naziogintza garatzeko strategiari bideak zabaltzea baino.

Uda betean gertatu da Katalunian euskaldunoi zuzenean eragiten digun beste gertaera esanguratsua: ERC alderdiak PSC-PSOE babestu zuen Generalitateko presidentetzarako bidean, eta ondorioz, Salvador Illa espainiarzale sutsua eta Kataluniako independentziarako bide demokratikoaren ukatzailea jarri zuen *president*. Hori gertatu zen egun berean, abuztuaren 8an, Carles Puigdemont *president*-a ere atzerritik etxera itzuli eta agertu zen Bartzelonan, *Parlament*-eko saioan parte hartzeko asmoz. Indarrez galarazi zioten eta atzerrirako bidea hartu behar izan zuen berriz ere.

Kontuak kontu, ERCren posizioa era-

Espainiako zein Frantziako ezker sozialdemokrata “progresista” deituak suertatzen dira Euskal Herriaren eta nazio zapalduen desnazionalizaziorako tresnarik indartsuenak

bat konprometitu agertzen da, bai Katalunian bai Euskal Herrian, independentziarako bide demokratikoak ireki nahi ditugun guztion aurrean. Baina hara non EH Bilduk, zergatik argi ez dagoela, erabaki zuen ERC dela haren aliatu estrategikoa, eta horrek EH Bildu bera ere zeharka konprometitu egiten du independentziaazaleen begietara. Agian horregatik esplikazioak ematen saiatu ziren handik egun gutxitara iritzi-artikulu luze eta mamitsu batean ezker abertzaleko bi arduradun ezagun, bigarren errepublika espainiarrari ateak ireki zizkion Donostiako Itun ezaguna gogora ekarrita, 1929 hartako abuztuaren 17an gauzatua, hain zuzen. Esanguratsua oso aipatu artikuluan defendatzen duten proposamena: estatu espainiar osoarentzako errepublika federala, ho-

rretarako ezker espainiarra eta ezker eta progresismo euskalduna bat eginda. Independentziaren helburutik nabarmen desbideratzen eta urruntzen den proposamena, beraz.

Bistan da Euskal Herrian zein Katalunian, alderdi abertzale instituzionalak, beren dinamika instituzional propioan murgilduta, estatu espainiarrean gero eta integratuago agertzen direla. Dela eskuin muturraren gorakada Espainian zein Frantzian geldiarazteko helburua lehenetsiz, dela gobernarritasuna argudiatuz, baina praktikan, azterketa zorrotz batzuetan salatu den bezala, Espainiako zein Frantziako ezker sozialdemokrata “progresista” deituak suertatzen dira Euskal Herriaren eta nazio zapalduen desnazionalizaziorako tresnarik indartsuenak. Horra hor uda hone-tan ikasi dugun zerbait.

Beste norabidea, oso bestelako estrategia, behar dugu, bistan denez. Horretarako bideak ere zabaltzen ari dira, eta gizarte zibiletik zein hainbat herri-erakundetatik ikusi ditugu urrats berriak. Bilboko Aste Nagusian, Itziar Ituñoren pregoi eredugarria euskara hutsean eta horren ondorio pizgarriak. Ehun mugimenduaren Euskal Errepublikaren aldeko urrats praktikoak, Plentziakoa aitzindari. Naziogintza elkartearen herri euskaldunentzako proposamenak. Eta abuztuaren 3an eta 4an Auritzen eta irailaren 8an Garazin Euskal Herriko estatu propioa zehazteko bide irekiak. Uda ez da oraindik amaitu. ●



KARMELO LANDA
HISTORIALARIA